

## 32. FITXA. Uraren hiri-zikloa digitalizatzeko proiektu berezien deialdia (argitaratzeko: irailerako aurreikusita)

**Nori zuzenduta:** Kudeaketa zuzeneko eta zeharkako hiri-uraren zerbitzuetako operadoreak 20.000 biztanletik gorako herrietan. 20.000 biztanletik gora dituzten eskatzaileen elkarteak (udalaz gaindiko erakundeak barne).

**Sartzeko esteka:** Ez dago eskuragarri. [TEC/XXX/2022 agindu-proiektua](#)

**Eremuak:** Uraren kudeaketa

**Zenbatekoa:** 200 M € (60 M € taldeentzat erreserbatuta)

**Aurkezteko amaiera-data:** 60 egun BOEn argitaratzen denetik, irailerako aurreikusia.

### Laburpena

Deialdi honen helburua honako hau da: uraren hiri-zikloaren digitalizazioaren arloan erakusle izango diren trakzio-programak finantzatzea, kontagailuen teleirakurketarekin eta horren ondoriozko onurekin lotutakoak bereziki.

**Uraren digitalizatorako PERTEaren baitan, 3Lrekin lotuta. Espainiako erabiltzaileen artean uraren digitalizazioa bultzatzeko laguntza programak garatzea:** I3. Uraren hiri-zikloa digitalizatzeko proiektu berezietarako dirulaguntzen lehen deialdia (norgehiagoka).

### Gastuen aldi hautagarria

Aurkezten denetik 2025eko abenduaren 31ra arte (gehienez ere 2026ko ekainaren 1era arteko luzapenarekin). Halaber, laguntzak jaso ahal izango dituzte ere 2020ko otsailaren 1etik aurrera hasitako jarduerak eta deialdia hasi aurretik amaitu ez direnak.

Proiektuak esleitu eta, gutxienez, 5 urtera mantendu beharko dira.

### Proiektu motak

Proiektu bakoitzak udal-barruti bat edo gehiago izan beharko ditu. Horrela, banaka edo elkarrekin —kasu horretan, nortasun juridikoa duten udalaz gaindiko erakundeak barne hartzen dira—, hautatutako proiektu bakoitzak gutxienez 20.000 biztanleri erantzun beharko die modu iraunkorren.

- **A Mota: estrategiak, planak, eraikuntza-proiektuak edo azterlanak egitea/eguneratzea.** Aurkeztutako proposamenean jasotako udal-barrutietako edozein lurralde-eremutan uraren hiri-zikloaren digitalizazioa sustatzen dutenak, baldin eta, beste elementu batzuen artean, honako hauek biltzen badituzte: karakterizazio topografikoko eta digitaleko lanak, biki digitalen sorrera, eredu hidrológico hidraulikoak, lehendik dauden bilketa-, hornidura-, saneamendu-, isurketa- eta arazketa-sistemen egoera eta diagnostikoa ebaluatzea, bai eta, oro har, uraren

kalitatearen kudeaketari eta ingurumen-arriskuei lotutako planak eta azterlanak ere, hornidurari, saneamenduari, euri-uren kudeaketari, kalitate orokorrari eta euri-uholdeen arriskuei dagokienez.

- **B mota:** uraren hiri-zikloa digitalizatzeko berariazko esku-hartzeak:
  - B.1.** Jabari publiko hidraulikoan ura **biltzeko** eremua ardatz duten digitalizazio jarduketak.
  - B.2. Hornidura**-sistema digitalizatzeko jarduketak, bai edangarri bihurtu aurreko hodietan, bai edateko ur bihurtzeko, banatzeko edo erabiltzaileei ura hornitzeko azpiegituretan, **sistemaren telekudeaketa eta teleirakurketa** sustatze aldera.
  - B.3. Saneamendu- eta arazketa**-sistema digitalizatzeko jarduketak, bai kolektore-sarean, bai saneamendu-sistemetako beste azpiegitura batzuetan.
  - B.4.** Digitalizazio-jarduketak hondakin urak jabari publikora **isurtzeko** puntuetan, bai isurketa eguraldi lehorrean egiten denean, bai prezipitazioak daudenean bakarrik egiten denean.

Lau jarduketa mota horien osagarri gisa, aurretik aipatutako elementuak behar bezala sentsorizatzeko ezinbestekoak diren egiturazko jarduketak sar daitezke, bai eta elementu horiek garatzeko beharrezkoak diren komunikazio tresna guztiak ere —bereziki, Internet of Things (IoT) informazioaren teknologiak ezartzera bideratutakoak—.

- **C mota: plataformak edo informazio-sistemak eta tresna digitalak egitea/eguneratzea edo hobetzea,** B motako jarduketetatik lortutako datuak tratatzeko, berrerabiltzeko eta sortutako informazio guztia balioesteko. Horren bidez, uraren hiri-zikloaren barne-kudeaketa hobea ahalbidetzeko moduan egongo litzateke. Era berean, proiektuaren lurralde-eremuan uraren hiri-zikloaren kudeaketa gardena suspertuko litzateke, bai egoera arruntetarako, bai sistemak prezipitazioak gertatzen direnean kudeatzeko. Horretarako, kudeaketaren aurrerapenari erreparatuko zaio, proiektuaren hiri-eremuaren kudeaketa adimenduna xede izanda (Smart city), bai eta zibersegurtasuna ere, deialdi honen esparruan dauden edo garatuko diren kudeaketa sistema guztietan.

**Aurkeztutako proiektu guztiek B.1. edo B.4 sartu beharko dituzte,** proiektuak gutxienez hobekuntza bat ekar dezan jabari publiko hidraulikotik bildutako ur-bolumenaren digitalizazioan edo hondakin uren isurketei lotutako informazioaren digitalizazioan.

**B2 proiektu guztiek sartu beharko dituzte** banaketa-sareetako eta udal-titulartasuneko eta -kudeaketako hartuneetako egiturazko ihesen kudeaketa kontrolatzeko eta hobetzeko ekintzak. Derrigorrezkoa izango da ere energia-kontsumoa gutxienez % 10 murrizteko jarduerak ere sartzea. Horretarako, energia-efizientziarako neurriak aplikatuko dira eta jarduketetan energia-efizientziarako klausulak eta irizpideak sartuko.

Proiektuek, nahitaez eta zeharkakotasunez, honako ekintza hauek jaso beharko dituzte:

- a) Gobernantza, langileen partaidetza eta prestakuntza-plana.
- b) Komunikazio- eta sentsibilizazio-plana
- c) Adierazleen neurketa eta jarraipenerako plana.

## Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

### 3-10 M €-ko laguntza proiektu bakoitzeko

Laguntzaren zenbatekoa (dirulaguntza):

- 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan egiten diren jarduketak, % 80raino.
- B3 edo B4 jarduketak, % 80raino
- Gainerako jarduketak, % 60raino.

Osagarriak (metagarriak):

- Proiektu integratua (B tipologia guztiak udal-barruti batean barne hartzen dituzten jarduketak): udalerrri horretako jarduketek gain, % 5 gehiago.
- Elkarteak edo, onuradun bakarria bada, 5 udalerritik gorako lurralde-eremua: jarduera guztiek gain, % 5 gehiago.

Emandako dirulaguntzaren urte bakoitzeko % 80ko aurrerapena eskatzeko aukera dago. Horretarako, justifikatu egin behar da, urte horri dagokion aurrerapena eskatzeko unean, jada jaso duten aurrerapenaren zenbatekoaren % 60 gutxienez esleitu dutela.

## Parte hartzeko baldintzak

Honako hauek dira onuradun hautagarriak:

- 20.000 biztanletik gorako herrien hiri-uraren zuzeneko kudeaketako zerbitzuetako operadoreak (tokiko erakundeak berak kudeatzen du; tokiko erakunde autonomoa; eta tokiko enpresa-erakunde publikoa; eta/edo tokiko merkataritza-sozietatea, titulartasun publikoko kapital soziala duena) eta zeharkako kudeaketako operadoreak. (EIN 2021), tokiko partzuergo publikoak berariaz sartuta.
- 20.000 biztanletik gora dituzten eskatzaileen elkarteak (udalaz gaindiko erakundeak barne).

Zeharkako kudeaketaren kasuan, dago(z)kion Udal(ar)en osoko bilkurak onetsi beharko du. Toki erakundeen eta nortasun juridiko propioa duten udalaz gaindiko erakundeen kasuan, eta organismo baten, enpresa-erakunde publiko baten edo merkataritza-sozietate publiko baten bidezko zuzeneko kudeaketa duten kasuetan, horien gobernu-organoak egingo du onespren hori, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

## Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

- Langile-gastuak (% 100, gehienez, proiekturako bakarrik eta berariaz kontratatutakoentzat, proiekturako dedikazioaren arabera, % 85 gehienez)
- Bidaiak eta mantenua
- Kudeaketa, ingeniariaritzak, ezarpen, jarraipen eta obra zibileko kanpo-laguntzak.
- Material inbentariagarria: instalazioak eta material inbentariagarria amortizatzea proiektua gauzatzeko aldiaren, softwarea, aplikazio informatikoak, ekipamendu teknologikoak, zerbitzarien kudeaketa eta mantentze-lanak, edo informazioaren on line biltegiaketa barne.
- Material suntsikorra (eskuratutako materialak, baldin eta haien bizitza baliagarriak ez badu gainditzen proiekturako onetsitako gauzatzeko-kronograma)
- Jarduketaren ondoriozko beste kostu batzuk, proiektua gauzatzeko beharrezkoak direnak; eta, hala badagokio, proiektua gauzatzeko epean jarduketak egiteko edo mantentzeko egindako gastuak.
- Zeharkako kostuak: Zuzeneko gastuen % 4ra arte
- Ikuskari bakoitzaren justifikazio-kontua berrikustea: emandako laguntzaren % 5era arte

## Balorazio-irizpideak

- Proposamenaren kalitatea: 30 puntu.
- Ingurumen eta gizarte gaiak: 35 puntu.
- Gai estrategikoak: 35 puntu

IRIZPIDEA	puntuak
<b>PROPOSAMENAREN KALITATE TEKNIKOAREN IRIZPIDEAK</b>	<b>30</b>
Ebatzi beharreko problematikaren analisi egokia eta proiektuaren justifikazio egokia, uraren ziklo integralaren kudeaketaren problematikari dagokionez.	8
Beharrezko jarduketa guztien definizio zehatza eta koherentea, proiektuaren justifikazio tekniko eta SEEParen helburuekin duten harremana.	8
Helburuei eta emaitzei egokitutako aurrekontua, uraren hiri-zikloko jarduketan tipologiaren arabera orekatua izatea eta justifikazio-maila egokia edukitzea.	8
Langileen gobernantza-, partaidetza- eta prestakuntza-estrategia osoa eta koherentea, egin beharreko jarduketan esparruan	2
Aurkeztutako proiektuari eta deialdiaren helburuari egokitutako sentsibilizazio- eta komunikazio-estrategia.	2
Proiektua, haren adierazleak, emaitzak eta proiektuaren egokitzapen-kudeaketa aldizka ebaluatzeko eta horren guztiaren jarraipena egiteko neurriak.	2
<b>INGURUMEN- ETA GIZARTE-IRIZPIDEAK</b>	<b>35</b>
Proiektua kokatuta dagoen ur-masen egoera eta plangintza hidrológicoan ezarritako ingurumen-helburuak hobetzen laguntzea.	8
Kudeaketaren eta baliabide hidrikoen efikazia eta efizientzia hobetzen laguntzea, ur-galerak gutxitu eta horniduren bermea hobetzen laguntze aldera.	8
Osagai klimatikoa kontuan hartzea, eta arintzeko eta egokitzeko irtenbideak proposatu.	8
Erronka demografikoari heltzeko eta landa inguruneetan uraren zikloa hobeto kudeatzeko ekarpena egitea.	4
Uraren kudeaketaren bidez, talde zaugarrien bizi-baldintzak hobetzen laguntzea.	2
<b>IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK</b>	<b>35</b>
Proiektuak egiten duen ekarpena jabari publiko hidraulikoaren kudeaketan eta administrazioan gobernantza hobetzeko. Halaber, horri lotutako araudiaren ezarpena bultzatzea. Hori guztia eskumena duten administrazio hidraulikoekin koordinatuta, bereziki, lotutako administrazio-emakidak eta -baimenak kontuan hartuta.	8
Proiektuan uraren hiri-zikloaren kudeaketan gardentasuna sustatzen laguntzea, parte hartze publikoa eta uraren zikloa digitalizatzeko PERTEaren gainerako helburuak.	8
Onuradun(ar)en antolaketa eta artikulazio osoa eta koherentea, uraren zikloaren eskumen-araubideari eta kudeaketari dagokienez.	7
Izaera berritzailea, osorik edo ekintzaren batean, eta/edo beste eskala batzuetara transferitzeko aukera eta adierazgarritasuna izatea, eremu geografikoei dagokienez.	7
Emaitzen iraunkortasuna, irtenbide erresilienteak hartzea justifikatze aldera; zibersegurtasuna, "Smart city" hiri-eredu adimendunak sustatzea, eta proiektua ezartzeko epearen ondoren proiektua mantentzeko bermeak.	5

## Bestelako informazioa

- Dirulaguntzaren xede diren jarduerak 2023ko ekainaren 1a baino lehen hasi direla ziurtatzea, bai eta aurreikusitako jarduketan diruz lagundu daitekeen kostuaren % 40 gutxienez 2024ko abendua amaitu baino lehen gauzatuko dela ere.
- BEZ ez hautagarria, berreskura daitekeenean.
- Eskatzaile berak eskabide bat edo gehiago aurkeztu ahal izango ditu udalerrri baterako edo gehiagorako, edo udal-barrutien elkarte batzuetarako, banaka edo beste eskatzaile batzuekin elkartuta.
- Azpikontratazioa baimenduta egotea % 90ean
- Salbuespen gisa, sasoiko biztanleria sartu ahal izango da 20.000 biztanleko gutxieneko atalaserako (azterketa teknikoa)
- DNSH betetzea
- Derrigorrezko adierazleen koadroa